



BIZIKIDETZARAKO HEZKUNTZAREN ALDEKO KONPROMISOA

Ekitaldi honetara bildu garen euskal hezkuntza-komunitatearen erakunde eta eragileek adierazpen hau egin nahi dugu eta ondorengo jarduerak adostu, gure etorkizuna egituratuko duten belaunaldi berriak askatasunean eta Giza Eskubideen begirune zorrotzaren bidetik hezteko eginkizunari jarraipena emateko asmoz.

Hezkuntza, funtsean lehenik eta behin, baloreetan oinarritutako hezkuntza da: hiritar aske, kontziente eta kritikoen formazio integrala.

Euskal gizarteak garai berri baten irekiera alaitasunez eta itxaropenez bizi duen une erabakigarri honetan, hezkuntzak, familiarekin eta beste gizarte-eragileekin batera, areagotu egin behar du bere betebeharra, euskal belaunaldi berriak etorkizunerako elementu gisa era daitezen, gure herriarentzat bizikidetza oso, integratzaile eta iraunkor baten aro berri bat bermatuz. Betiere gure orainaren eta iraganaren egiazko ezagutza integral batean oinarriturik, oroimenik gabe ez baitago etorkizunik, ez askatasunik, ezta justiziarik ere.

Euskal gizarteak argia eta ilusioa galdegiten die hezkuntza-erakundeei, askatasun eta demokrazia osoko etorkizunari bidea zabal diezaioten, justiziaren eta egiaren bidetik, non gatazkak eta desadostasunak bortizkeriarik gabe konponduko diren, elkarrizketan oinarriturik.

Kontziente gara gure dibertsitateaz, baina herri-ikuspegi konpartitu baten bilaketarekiko, demokraziarekiko eta, gure kasuan, hezkuntzarekiko konpromisoak batzen gaitu.

Kontziente gara hezkuntzari akordioak eta adostasunak ematen dioten balioaz, betiere zaindu eta gorde egin behar duguna.

Etorkizuneko belaunaldien prestakuntza adoretzeko ohorea eta abantaila, baina era berean erronka eta erantzukizuna, ditugu . Horregatik zera adosten dugu:

1.- Giza Eskubideen eta pertsonaren duintasunaren begirunean oinarritutako hezkuntza bultzatzea, edozein xede edo egokieraren gainetik.

2.- Iraganean, orainaldian edo etorkizunean Giza Eskubideen urraketaren edozein justifikazioaren aurrean jarrera kritikoa indartzea.

3.- Eskubide horien haustearen ondoriozko biktimekiko enpatia bilatuko duten jarduerak sustatzea.

4.- Benetako bizikidetzak demokratikoa sostengatuko duten balioak eta jarrerak indartzea, hezkuntza esparrutik hasita gizarte osoraino helduz.

5.- Gure hezkuntza-komunitatean eta gure gizartean kultura demokratikoa finkatuko duten jarduerak bateratuak adostea.

Bilbon, 2011.ko abenduak 30